



**EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**  
**BERANGOKO UDALA**

**2013-2017**

## **SARRERA**

Euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. V. Plangintzaldia 2013an hasi eta 2017an amaituko da.

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak, 19. artikuluan, ezartzen du euskal herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planak onartuko dituztela plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, eta horrelakorik onartua duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak. Berangoko Udalari egokitzapenak egitea dagokio, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko abenduaren 29an onartu baitzuen erabilera normalizatzeko plana 2008-2012.

Herri Administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara planen helburu nagusia, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara Planon helburu estrategikoek helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

- 1.- Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
- 2.- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.
- 3.- Hala dagokionean, Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.

Euskararen erabilera normalizatzeko planetan, honako hauek jasoko dira:

- a) erakundearen gaur egungo hizkuntz egoera azalduko da eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun ezarri zaion eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere zehaztuko da. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntz gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da bertan.
- b) entitatearen hizkuntz helburuen arabera, zenbat administrazio-atal elebidun eta euskarazko sortuko diren proposatuko da eta, era berean, zehatz-mehatz azalduko da zein lanpostuk osatzen duten atal bakoitza eta zein diren ezarri edo, hala badagokio, moldatuko diren derrigorrezko hizkuntz eskakizunak.
- c) ondo zehaztuko da zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruotan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-

arloetan, hizkuntz paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntz helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.

d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezten.

### **BERANGOKO UDALAREN EGOERA LINGUISTIKOA:**

Euskal Autonomia Elkarteko biztanleen euskararen ezagutzari buruz Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan eta, hala badagokio, datu horiek egiaztatzeke taula orokorretan jasotako informazioa kontuan hartuta, derrigorrez bete beharreko indizea, ondorengo era honetara finkatuko da: Euskaldunak + (Ia Euskaldunak/2). Ia euskalduna da euskara ulertzen duena, baina gero hitz egiteko zailtasunak dituena.

86/1997 dekretuaren arabera, administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko du zein den derrigorrezko eskakizunen portzentaia, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntz eskakizuna. Hitzez hitz honako hau ezartzen du:

“Plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, beti ere, herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta”.

V plangintzaldiaren hasieran 2006ko datuak daude indarrean. Datu horien arabera kalkulatu dira indizeak, honako helburu hauekin:

- Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

- Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

- Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

- Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %70etik %100era bitartekoa denean:  
Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, pixkanaka, euskarazko administrazio atalak jarriko dira, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

2006eko erroldaren arabera, Berangok 6.008 biztanle zituen, 2.090 euskaldun eta 1.756 ia-euskaldun.

Berangoko udalari dagokion indizea % 49,40koa da.

Guztira 27 lanpostu daude, eta 15 dira derrigortasun data dutenak, hau da, %55,55a; beraz, gainditu egiten da derrigorrez bete beharreko indizea.

15 lanpostu horietatik, 11k egiaztatu dute dagokien hizkuntza eskakizuna eta besteak salbuetsita daude adinagatik.

Derrigortasun datarik ez duten lanpostuen artean, langile batek egiaztatu egin du zegokion hizkuntza eskakizuna 3HE (musika irakaslea) eta, beste batek, dagokion hizkuntza eskakizuna ez (4HE) baina aurrekoa egiaztatu du (3HE) (arkitektoa).

Bestalde, Dekretuaren arabera, euskara zerbitzuko lanpostua ez da inola ere sartuko ezarritako indizea betetzen dela egiaztatzean (25).

### LANPOSTU ZERRENDA

Lanpostua	Hizkuntza eskakizuna	Derrigortasun data	Egiaztatua	
-----------	----------------------	--------------------	------------	--

#### Zerbitzu Orokorrak

1.Idazkaria	4	30-12-02	2	
2.Kontu-hartzailea	4	31-12-03	0	
3.Administraria	2	31-12-01	1	
4.Administraria	2	30-12-02	0	
5.Administrari laguntzailea	2	31-12-01	2	
6.Ekonomilaria	4		0	
7.Administraria	2		0	

8.Administrari laguntzailea	2	31-12-91	2	
9. Administrari laguntzailea	2	30-07-07	3	

### Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak

10. Arkitektoa	4		3	
11.Aparejadorea	3	31-12-03	3	
12.Administraria	2		0	
13.Obra-arduraduna	2		0	
14.Lanbideetako laguntzailea	1		0	
15. Lanbideetako laguntzailea	1		0	
16. Lanbideetako laguntzailea	1		0	
17.Menpekoa (Herri ikastetxeko giltzazaina )	2	31-12-94	2	
18.Garbitzailea	1		0	
19. Garbitzailea	1		0	

### Udaltzaingoa

20.Udaltzaina	2	30-07-98	2	
21. Udaltzaina	2	30-07-98	3	
22. Udaltzaina	2	30-07-98	2	
23. Udaltzaina	2	30-07-98	2	

## Gizarte Zerbitzuak

24.Gizarte langilea	3	30-07-95	3	
25.Euskara dinamizatailea	4 TP		4	
26.Musika irakaslea	3		3	
27.Kultur etxeko menpekoa	2	31-12-94	2	

### ATALEN SAILKAPENA:

86/97 Dekretuan hurrengo sailkapena agertzen da administrazio atalen izaera kontuan hartuz:

- ★ Jendaurreko atala: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuairekiko harremanetan oinarritzen denean.
- ★ Gizarte izaerako atala: herri administrazioaren harreman sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.
- ★ Atal Orokorra: bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- ★ Atal Berezia: atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantenimendu- eta kontserbazio-lanetan, obra, garbiketa eta abarretan edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzte instalakuntza zein ekipoen, laboratorio eta antzekoen mantenimendu- eta kontserbazio-zereginetan.

Berangoko Udaleko Atalak era honetan sailkatzen dira:

#### Jendaurrekoak

Zerbitzu Orokorrak: Administraria (3 zk.ko lanpostua)  
Administraria (4 zk.ko lanpostua)  
Administrari Laguntzailea (8 zk.koa)  
Administrari Laguntzailea (9 zk.koa)

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak: Menpekoa (17 zk.koa)

Gizarte Zerbitzuak: Kultur etxeko menpekoa (27 zk.koa)

#### Gizarte izaerakoak

Udaltzaingoa: denak (4 lanpostu)

Gizarte zerbitzuak: Gizarte Langilea (24 zk.koa)  
Musika irakaslea (26 zk.koa)

### Orokorrak

Zerbitzu Orokorrak: denak jendaurrekoak izan ezik (5 lanpostu)

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak: Arkitektoa (10 zk.koa)  
Aparejadorea (11 zk.koa)  
Administraria (12 zk.koa)

### Bereziak

Hirigintza, Obrak eta zerbitzuetakoak (6 lanpostu)

## **ADMINISTRAZIO ATAL ELEBIDUNEN PROPOSAMENA:**

Udaltzaingoa eta Gizarte Zerbitzuak izendatu dira atal elebidunak. Atal horietako langile guztiek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute, nahiz eta, kasu batzuetan, derrigorrezkoa ez izan.

Udaltzaingoaren kasuan, lanpostu guztiek dute derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Gizarte Zerbitzuak ataletako hiru lanpostuetan, euskara zerbitzuko alde batera utzita, derrigorrezko bi hizkuntza eskakizun agertzen dira, denak egiaztatuta. Beste langileak egiaztatu egin du bere hizkuntza eskakizuna, nahiz eta derrigortasun datarik ez izan (musika irakaslea).

Dena den, atal elebidunez gain, lanpostuaren izaera eta langilearen hizkuntza-gaitasuna kontuan harturik, jarraian aipatzen diren lanpostuak ere planean sartzea erabaki du udalak: 8 zenbakia duen administrari laguntzailea baita 9 zenbakia duena ere, 17. zenbakia duen herri ikastetxeko menpekoa eta kultur etxekoa (27).

Hori guztia horrela, 11 langile sartuko dira Berangoko euskara-planean 2013-2017 plangintzaldian.

## **HARTUKO DIREN NEURRIAK, ATAL ELEBIDUNEK AURRERA EGIN DEZATEN**

### **Administrazio egintzak eta jarduerak**

Euskarak Berangoko udal administrazioaren zerbitzu hizkuntza –eta, hala badagokio, lan hizkuntza– izan behar du. Udaleko lanpostuetan barruko zereginak zeinahi hizkuntzatan betetzen direla ere, administratuei zuzenduriko edo administratuekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz ere eskaini eta burutu beharko dira.

## **Udalaren idazkun, errotulu eta seinaleak**

Berangoko Udalaren arlo, sail, bulego eta lanlekuetan ikusten eta erabiltzen diren idazkun guztiak euskaraz edo ele bietan agertuko dira:

- a) Bulego eta langetako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko zigiluak, zigiluak eta antzeko tresnak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkunak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.

Kale eta auzoen izenak agertzen dituzten plakak, trafiko seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauari jarraion eginez.

## **Udal erregistroko agiriak**

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak agintzen duen legez, udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira udal erregistroan.

Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta bestelako agiriak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

## **Administratuekiko harremanak**

Euskeraren Erabilpena Arautzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Berangoko Udalak honako oinarrizko hizkuntz eskubideok aintzatesten dizkie bere administratuei:

- a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.
- b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irriati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.



- c) Udalaren osoko bilkura eta batzarretan euskaraz egiteko eskubidea.
- d) Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen ikasketak euskaraz egiteko eskubidea.

Euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan daukaten pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdun pribatuek beren beregi Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bakarrean jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

Udal administrazioak ontzat hartu beharko ditu pertsona fisiko nahiz juridiko eta pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

Inprimaki guztiak hizkuntza ofizial bietan eskainiko dira, ahal den guztietan, ale berezietan.

### **Instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanak**

Berangoko Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei.

### **Udalaren ebazpenak eta argitalpenak**

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak, edozein motatako ebazpen eta erabakiak, iragarkiak eta, oro har, jendaurreko argitalpen guztiak hizkuntza ofizial bietan argitaratuko dira. Bestalde, udalaren web orri, aldizkari, berripaper, gida eta antzeko argitalpenetan euskararen erabilera gaztelaniaren parekoa izan dadin bermatu beharko da.

### **Batzarrak eta aktak**

Berangoko Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeen batzarretan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezten.

Berangoko Udalaren osoko bilkuretarako nahiz tokiko gobernu batzarretarako deialdiak eta aktak hizkuntza ofizial bietan argitaratuko dira.

## **Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea**

### **Langileen euskalduntzea eta trebakuntza**

Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta 86/1997 Dekretuak xedatutakoa betez, Berangoko Udalak taxuzko neurriak hartuko ditu bere zerbitzupean lan egiten duten pertsonak euskaraz jarduteko gaitasun egokia lor dezaten. Horretarako, udalak langileen euskalduntzea eta trebakuntza bultzatu eta erraztuko ditu.

### **Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak**

86/1997 Dekretuak araututakoa betetzeko, Berangoko udal administrazioari lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna esleituko zaio eta, hala badagokio derrigortasun-data ere bai, betiere dekretu horrek ezarritakoekin bat.

Lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak udalak urteko aurrekontuekin batera eman beharreko lanpostu zerrendako zehaztapenetan ageriko dira.

### **Udalaren atal elebidunak eta udalaren euskara plana**

86/1997 Dekretuari jarraituz, Berangoko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar du. Modu berean, administrazio atalen sailkapena egin eta, erakundearen hizkuntz helburuen arabera, zenbait administrazio atal elebidun izendatuko ditu.

### **Euskararen erabilera udalerrian**

Berangoko Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu euskararen erabilera areagotzeko. Helburu hau lortzeko, Berangoko udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatu, onartu eta gauzatu du, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ezarritako irizpideei jarraituz.

Berangoko Udalaren plan estrategikoak berebiziko garrantzia emango die Euskara Sustatzeko Ekintza Planeko helburu estrategikoei eta helburu horiek lortzeko zehar lerroei:

### **Helburu estrategikoak**

#### **Euskararen jabeakuntza**

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

#### **Euskararen erabilera**

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak

6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola

#### **Euskararen elikadura**

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

#### **Helburuak lortzeko zehar-lerroak**

##### **Euskararen aldeko motibazioa**

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

##### **Euskararen zabalkundea**

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

#### **Udalaren azpiegitura**

Araudi hau modurik eraginkorrenean gauzatu eta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta abian jartze aldera, Berangoko Udalaren barne organigrama honelaxe era daiteke: euskara batzordea eta euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoa:

- a) Euskara batzordea euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den antolakunde politikoa dugu. Bi zeregin nagusi izan behar ditu: batetik, udalak hizkuntz politikaz hitzartutako akordioak, hartutako erabakiak eta onartutako planak aditzera eman eta betearaztea, eta, bestetik, euskara batzordea dinamizatu eta bizkortzea.
- b) Euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak, jendaurreko administrazio egintza eta jarduerak hizkuntza ofizial bietan agertzeko behar diren itzulpen eta testu-zuzenketekin arduratzeaz gain, administrazio nahiz udalerrri eremuetan udalak planifikatutako hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, gauzatu eta balioztatu beharko ditu. Orobat, euskara zerbitzua udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, hala soziolinguistikoetan nola estandarizazio prozesukoetan.

## **KONTRATAZIO ALORREAN ERABILIKO DIREN NEURRIAK**

### **Udal langileen eta zerbitzuen kontratazioa**

Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Berangoko Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari, batez ere, euskalduntzearen beharrianik handiena duten atalei dagokienez. Horrela, bada, jendaurreko administrazio-unitateetan nahiz gizarte-izaerako ataletan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharko da. Horretarako derrigortasun data jarri beharko litzaioke lanpostuari.

Aurreko artikuluan aipatutako administrazio ataletakoak ez diren lanpostuak betetzerakoan, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

1. HE eta 2. HE: %10; 3. HE eta 4. HE: %20

Aldi baterako lanak egiteko lan-kontratuko beharginak aukeratzeko deialdietan, euskaraz jakitea eskatu edo balioetsiko da, betiere 86/1997 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian finkatutakoari jarraituz.

Gerta daiteke hirugarren batek zerbitzuak eman behar izatea udalaren ordeiz, eta horietan herritar edo erabiltzaileekin zuzeneko hartu-emanak eduki behar izatea. Halakoetan, zerbitzu-emaileak bete beharko ditu udalari dagozkion hizkuntza-beharkizun berberak, eta hala jasoko da beren beregi administrazio-klausula berezien pleguan.

-----